

XXIV RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

XXIV Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko helburuarekin Andoaingo Udalak izendaturiko epaimahaia honako hauek osatu dute:

- *Mahaiburua*: Ainara Rodríguez, Andoaingo alkate orde eta Euskarako zinegotzia.
- *Mahaikideak*: Lorea Agirre, Alazne Aiestaran, Allande Boutin, Ainara Mendiola eta Joxe Rojas.
- *Idazkaria*: Patxi Baztarrika.

Epaimahaiak ondorengo *azken erabakia* hartu du ahobatez.

AZKEN ERABAKIA

Euskarazko kazetaritzan bikaintasuna eta etengabeko berrikuntza sustatzea da, labur esanda, Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren helburu nagusia. Horrexegatik, bikaintasuna eta berrikuntza goiburu dituela egin du epaimahaiak 2011ko maiatzetik 2012korako tartean kazetariak euskaraz egin duten lanaren azterketa. Ez da erraza izan erabakiak hartzea, oparotasun eta kalitate ederreko lanak izan baitira aztergai, zorionez izan ere.

Bada, nolana ere, sariei buruzko erabakiaren berri eman aurretik adierazi beharreko kontu bat, honakoa: Epaimahaiaren proposamenarekin bat eginez, Andoaingo Udalak erabaki du Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren aurtengo ekitaldi nagusian Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi, gogoan hartzea. 2012ko urtarrilean hil zen idazle, hizkuntzalari eta politikari donostiarra, 82 urteko bizialdi oparoa osatuta. Eleberriak, saiakerak, itzulpenak... askotarikoa izan da Txillardegi, Larresoro, Harribizketa edo Igara sinadurez Jose Luisek euskal kulturari egindako ekarpena. Euskal kazetaritzan ere ale ugari utzi zuen jira-bueltarik gabeko idazkera zorrotz eta propioaz baliatuta, batez ere Zeruko Argian, Anaitasunan, Garaian, Hitzan eta Brankan argitaratu zituen artikuluen eskutik. Zer leku egokiagorik Rikardo Arregi Kazetaritza Saria baino Txillardegiri aitormen xume hau egiteko.

Gatozen orain sarietara. Irabazi dutenak merezimendu osoz dira irabazle, ez da dudarik horretan. Baina pozik diogu eztabaida askoren ondorena dela azken erabaki hau, asko baitira, prentsa idatzian nahiz irrati eta telebistan edota agerkari digitaletan maila goreneko kazetaritza euskaraz egiten dutenak. Zorionak, beraz, irabazleei, eta esker on gaurko sariotakoren baten atariaren bueltan ibili diren hainbeste eta hainbeste kazetariri. Esan dezagun, azkenik, oinarriek aukera ematen diguten sari eta aipamen guztiak baliatu ditugula.

1. Aipamen berezia

Apirilaren 8 gauean hil zen Sautrela. Epaimahaiak “Gora Sautrela!” aldarrikatu nahi du ia hiru hilabete geroago. 13 urte, 351 saio: ibilbide luze bezain oparoa izan da nagusiki euskal literaturaren gainean ETBk eskaini duen literatur programa gozo, aberats eta eredugarri hau. Eredugarria ez bakarrik Euskal Herrirako, edozein herrialdetarako baizik. *Sautrela* izeneko olerkia bildu zuen Bernat Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* aitzindariak bezala, euskarazko literaturan aztarna utzi du eta utziko du aipatutako saioak. Zuzendari eta aurkezle izan den Hasier Etxeberria, errealizazioaz eta produkzioaz arduratu den Orio Produkzioak S.A. (izenda ditzagun Martin eta Unai Ibarbia), gidoigintzan eta dokumentazio lanetan erredakzioan aritu direnak, lantalde osoa eta ETB bera, eta, jakina, nola ez, elkarrizketatuak izan diren idazleak, horiek guztiak dira Sautrelaren bikaintasunaren merezimenduaren jabe. Bertan lan egin duten guztiek asmatu dute, euskara ederrean, etxeko eta mundu osoko literaturari buruz estilo berritzaile, erakargarri, arin bezain sakon, eta bikainean saio eredugarri hau egiten.

Hiru puntu azpimarratu nahi ditugu *Aipamen berezia* Sautrelari egiterakoan. Lehena: euskal literatura ikustarazten, gizarteratzen eta prestigiatzen lagundu du, eta bide batez euskara bera sustatu du Sautrelak. Bigarrena: ETB-ren erreferentziazko programa izatea lortu zuen, bidenabar euskal literatura eta euskara erreferentzialtasunaren munduan kokatuz. Hirugarrena: ETB-ri asko zor dio Sautrelak, 13 urtetan emandako aukera bestek beste, baina ETB-k berak ere asko zor dio Sautrelari, ETBren irudia hobetzeko eta izaera publikoa sendotzeko balio izan baitu literatur saioak.

Desio bat, bukatzeko: Sautrela hil da, baina euskal literaturak eta euskarak bizirik diraute, eta hauspoa behar dute sasoiko izango badira. Espero dezagun ETBk lekua egitea euskal literaturari etorkizun hurbilean ere. Euskarazko telebista guztiei, baina bereziki kate nagusiari, eta hedabideei, oro har, kalitatearen, berrikuntzaren eta ausardiaren aldeko apustua egiten jarraitzea eskatzen diegu, erabateko krisi garaiotatik indarberrituta atera daitezen, eta, haiekin batera, gizarte osoa.

2. Ohorezko aipamena

Euskal kazetaritzan aitzindari eta bide-erakusle izan direnen traiektoria eta erreferentzialtasuna aitortzea da *Ohorezko aipamenaren* helburua. Aurtengoan iparraldean pausatu du bere begirada epaimahaiak.

1982an, Frantzian, uhin erradiofoniakoak askatu zirenean, orduan esaten zenez, lehen aldikoz lau haizetara euskal irrati baten ahotsak zabaldu ziren Iparraldean, *Gure Irratiarenak* alegia. Gaur egun boz “historikoak” bilakatu direnen artean, Mattin Larzabalena daukagu.

Duela hogeita hamar urte ausarta izan behar zen ogibidea uztea, euskara hutsezko irrati baten apustua egiteko, dena sortzeko, egiteko, asmatzeko zegoelarik. Mattin, Iparraldearen gaindi ibili da, mikrofonoa eskuetan, jendearen lekukotasunak biltzen. Irratiko ahotsari, aurpegia eman zitzaion. Ezpain xokoan, aunitz esan nahi duen betiko irriñoarekin.

Irribarretsu nola seriosa eta beroa izaten dakien Mattinen ahotsa, 30 urtez, *Gure Irratiaren* entzuleriaren bidelaguna izan da.

Erretiratzea tokatuko zaio Mattin Larzabali urte hondarrean, eta aitzindaria izan den kazetariaren eredugarritasuna geldituko da ondoko belaunaldientzat: jendea arretaz entzuteko gaitasuna, entzulearenganako hurbiltasuna, umorea eta ibilmolde libertario xamarra, Aiherrako lapurtar-nafarreraren dotorezia eta zehaztasuna. Hots, Mattin Larzabal egiten duen guztia. Irratilari batentzako paradoxikoa den arren, lan isila egin du Mattinek. Beti buru-belarri jardunean, baina bere gogoz bederen nabarmendu gabe, itzalean nolabait.

Mattin Larzabalentzat, beraz, Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren XXIV. edizioko *Ohorezko aipamena*.

3. Kazetari berria ataleko saria.

Kazetari berria ataleko saria, kazetaritza munduan lehen urratsak egiten ari direnak gogoan hartuta ematen den saria da: 27 urte edo gutxiago dituztenek bakarrik dute lanak aurkeztu eta saria jasotzeko aukera.

Aurtengoan erreportajeak dira atal honetan saritutakoak. Saritutako lanen argitan irabazleak sariaren jabe izateko dituen merezimenduen artean, honako hauek nabarmendu nahi ditu Epaimahaiak:

- Ekonomia da erreportajeen bizkarrezurra. Gehienei lehorra gertatzen zaien gai bat samur, zehatz eta modu ulerterrazean azaltzen du.
- Estilo bizia eta idazkera erakargarria baliatzearen poderioz, gaia bera ere erakargarri bihurtzen du.
- Iturri eta lekukotza ugari ageri dira, eta Euskal Herri osoaren ikuspegia gailentzen da. Asmatu du alderdi ekonomikoa eta soziala uztarri berean jartzen.
- Alde grafikoa ere bikain zaindu du.

Sariduna: Miren Garate.

Saritutako lana: 2011ko azarotik 2012ko martxora bitartean Berria egunkariko "Egitura" gehigarrian ekonomiaren gainean argitaraturiko bost erreportaje, zehazki horietako bi nabarmendu direlarik: *"Iluna tunela amaitutakoan"* (2011ko azaroak 20) eta *"Presaka, eta hankamotz"* (2011ko abenduak 30).

Saria: 3.000 euro, diploma eta Xabier Laka eskultorearen oroi-ikurra.

4. Epaimahaiaren Sari berezia

Epaimahaiak lehenik eta behin adierazi nahi du, sari hau erabakitze bidean eztabaida luze eta sakona izan duela. Izan ere, aukera eta irizpide ugari aztertu baititu, guztiak ere pisuzkoak epaimahaikide guztien iritzian. Azkenean, luze jo duena bi aukeraren

gaineko gogoeta eta eztabaida izan da. Bi aukerak, edozein ertzetatik begiratuta ere, oso ezberdinak dira, baina bataren nahiz bestearen aldeko argudio ugari mahairatu eta baloratu dituzte epaimahaikideek, kontrakorik ez. Horrexegatik, azken bi aukerak azaltzea erabaki du Epaimahaiak. Irabazlea *Beranduegi telebista* izatea erabaki du Epaimahaiak, eta horren ondoan eztabaidagai izan den beste aukera “Ua ua hemendik hotsa... euskal irratigintzaren historia” irrati saioa izan da, Euskadi Irratiak 30 urte aurtan betetzen dituela-eta Koldo Ordozgoitik diseinatu, sortu eta, 2011ko urriaren 17az geroztik, Euskadi Irratian aurkezten duen saioa hain zuzen ere.

Berrikuntzaren irizpideari atxiki zaio Epaimahaia saria erabakitzerakoan.

Bete-betean lotzen zaio irizpide horri Beranduegi telebista, eta honako hauek dira Epaimahaiak nabarmendu nahi dituen arrazoiak:

- Aitzindari eta bide-erakusle da Beranduegi telebista, Interneterako propio pentsatu eta egindakoa, hutsik egin gabe asteroko saioa eskaintzen duena. Euskarri berrian kazetaritza-molde berritzailea egiten du. Bide berriak irekitzen ari den neurrian aitzindari da ez bakarrik euskal kazetaritzan, baita ingurukoetan ere. Inguruko telebista ohikoetan ez da gisa honetako saiorik.
- Euskararen hedadura soziala edo, nahiago bada, euskal hiztunen komunitatearen neurria kontuan hartuz, Beranduegi telebista bada gero eta zabalagoa den hedabideen munduan gure txikitasunari arnasbidea aurkitzeko ahalegin sendoa. Txikitasunaz nola baliatu eta txikitasunean arrakasta nola lortu erakusteko guztiz baliagarri den ekimena da Beranduegi telebista.
- *Argiaren* multimedia garapenerako aurrerapauso garrantzitsua da ekimen hau. Izan ere, hedabideetako albiste nagusien umorezko laburpena egiteaz gain, bai *Argia* aldizkarian, bai *Argiaren* webgunean zabaltzen dituzten edukien aukeraketa bat eskaintzen du, telebistarako propio prestatutako formatuan, eta horrela, euskarri guztiak elkarlotzen ditu.
- Ausardiaren erakusle ere bada. Hedabide tradizionalek nozitzen duten momentu kritikoan umorea erdigunean jarriz gisa horretara bide berrien bila abiatzeko ausardia nahitaezkoa da. Ausardia eta berrikuntza, nolana ere, nahitaezkoak baitira aurrerabidea aurkitu eta urratzeko.

Sariduna: *Beranduegi telebistako lantalde osoa.*

Saritutako lana: *Beranduegi telebista.*

Saria: 4.000 euro eta diploma.

4. Sari Nagusia

Kalitatea eta eredugarritasuna: horra Sari Nagusia erabakitzerakoan Epaimahaiak aintzat hartu dituen irizpideak. Irabazlearen kazetari jardunak eta saritutako lanek ezin hobeto betetzen dituzte irizpide horiek.

Gerran bizi diren tokietako kontakizunak idazten egin zaigu espezialista aurtengo Sari nagusiaren irabazlea. Urteak daramatza *free lance* gisa hara eta hona, injustiziak kontatzen, bazter urrunetako saminak azaleratzen, injustiziak eta saminak sentiarazten.

Kontuan hartzekoak dira, bestalde, *free lance* gisa lan egitearen arriskuak, besteak beste bikaintasunaren exigentzia areagotu egiten baitzaio horrela dabilenari: aurtengo saridunak bete-betean gainditzen du, oso nota altuarekin, bikaintasunaren marra. Karlos Zurutuza da sariduna, eta ondorengoak dira epaimahaikideek nabarmendu nahi dituzten merezimenduak:

- Kalitatezko kontakizunak eta kazetaritza da Karlos Zurutuzaren emaitza. Zuzeneko kontakizunak dira bereak, bera baita notziaren, gertakariaren eta protagonistaren bila doana. Arabiar herrialdeetako oldarraldiek atentzio handia bereganatu dute azken urtean, eta albistearen puntan egon den Libiak edota ia-ia ahanzturara kondenatua izan den Irak hartu ditu Zurutuzak kontagai, oso modu propioan: bestelako hedabideetan agertzen ez diren protagonisten ikuspegiak papereratu ditu, "ahotsik ez dutenen" testigantzak baliatuz.
- Oso erreportaje landuak dira bereak. Prosa aberatsaren jabe da. Kutsu zinematografikodun deskribapenak egiten ditu. Sarreratik bertatik hasita erakargarri gertatzen diren kontakizunak egiten iaioa da, eta bere estiloari eta erritmoari esker gai da irakurlea kontakizuneko gertakariaren testuinguruan kokatu eta, hitz soilen bidez, hunkitu, sumindu edo nahigabetzeko.

- Arriskatu egiten da, inplikatu egiten baita kontakizunean, datuen interpretazioari bizkarra erakutsi gabe, nahiz eta behar besteko distantzia gordetzen jakin, irakurleari zor zaion begiruneagatik.
- Iturri bilatzaile amorratua izanik, ofizialak ez diren iturriak bilatzeko ahalegin ikaragarria sumatzen da bere lanetan, ofizialak ez izan arren kontakizunaren protagonista diren “ezkutatu eta isilarazitakoen” ikuspegiak eskuratuz.
- Euskarazko kazetaritzari, eta, ondorioz, euskarari berari prestigioa ematen die Karloz Zurutuzaren erreportajegintzak.

Sariduna: Karlos Zurutuza.

Saritutako lana: “*Arabiar oldarraldiak Libia eta Iraken*” gaiaren inguruan 2011ko ekainetik 2012ko apirila bitartean Berrian eta Argian argitaratutako erreportajeak.

Saria: 9.000 euro, diploma eta Xabier Laka eskultorearen oroi-ikurra.

Aho batez harturiko Azken Erabakiaren akta hau epaimahaikide guztiek sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta hamabiko ekainaren zazpian.

Ainara Rodríguez

Lorea Agirre

Alazne Aiestaran



Allande Boutin

Ainara Mendiola

Joxe Rojas



idazkaria

Patxi Baztarrika